

dituztela aurtengoz Altsasuan ta egoki litzake jai oiek antolatzeko Euskaltzaindiaren izeneko bat izatea, artarako eratzi bear dan batzar-ordean. Berak dio : Etxegarai litzakela egokia ordekuntza ontarako. Euskaltzaindiak baietz esan du.

IV.—Azkue jaunak irakuñi digu Azkain-go batzaorean irakuñi zigun lanaren jaraipena : Epentética e, Bizkaiko a-ren ordezkoa erakusteko, Sauguis eta Oihenart-en atzotitzak eredutzat ekañi dizkigu.

V.—Etxegarai jaunak Lafaun-dik biali dizkioten *bertso-beñi* batzuek irakuñi dizkigu.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako utzita otoitzez amaitu da batzañaldi au.

Donostia'n, Eusko-lkaskuntzaren gela nagusian, 1930'ko Lotaziñaren 23'an.

Aurako batzaorean aipatzen diran jaun berak bildu dira eta otoitzez ari dira.

I.—Urkijo jaunak lan auxe irakuñi digu : ¿Conoció Oihenart los refranes vizcainos de 1596?

II.—Iztegiar luzaroan ekin degu.

III.—Orain dala gutxi Wincler jauna il da. Urgazlea baizan ta oregatik Euskaltzaindiak bere naigabea dager.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzañaldia.
